

ARETXABALETAKO UDALARI PROPOSAMENAK

BIODIBERTSITATEA





Aurten BIODIBERTSITATEAREN hainbat aspektu landu ondoren, Aretxabaletako Kurtzebarri ikastetxeko ikasleok udal honi zenbait proposamen egitera gatoz.

Lehenengo zikloko ikasleok gure eskola inguruko parkeko biodibertsitatea landu genuen, batez ere zuhaitz eta landareak. Ekintza desberdinak egin genituen: zuhaitzen izenak ikasi, hostoak jaso, enborrak kalkatu, fruituen aztarnak bilatu eta landareak identifikatu. Gustora aritu ginen baina gauza batzuetaz ere ohartu ginen. Hau dela eta udal honi eskaera hauek egin nahi dizkiogu:

- Parkean dauden landare inbaditzaileak zuztarretatik ateratzea.
- Zuhaitz bakoitzari dagokion izena jartzea.

2. zikloko ikasleok azpiegiturak eraikitzerakoan (herriak, errepideak...) gainontzeko espeziei eragiten diegun kaltea aztertu genuen.

Honen aurrean, udalari honako konpromisoak eskatzea erabaki genuen:

- Edozein motako lanak egiterakoan animalien gainontzeko pasabideak azpitik pasatzeko tunelak, gainetik pasatzeko pasabideak...
- Animalientzako babeslekuak jarri.
- Landareak hondatzen badituzte, birlandatu.

3. zikloko ikasleok Deba erreka aztertu genuen. Horretarako bi taldetan banatu eta batzuk erreka barne analisia egiten zuten bitartean, besteak kanpokoak, hau da, landaretza, pertsonok izandako eskuartzea...

Hau egin eta gero, Aretxabaletako Udalari zera eskatzen diogu:

- Kiroldegi inguruko sasi-arkaziak kendu eta bertako zuhaitzak landatu.
- Komentu atzetik elizarainoko dagoen tartearen behaketa egin eta zerbait egin daitekeen aztertzea (ibaia guztiz kanalizatuta dago).
- Urari gerizpea egiten diote eta erreka bazterretako zuhaitzei adarrak ez moztea. (Makal batzuk era desegokian moztuta ikusi genituen).



- Nahiz eta uraren kalitatea ona izan, zabor ugari dago. Noizean behin erreka garbitzea.

DBH 1. mailako ikasleok gure basoen egoera aztertu dugu, zer egon beharko litzatekeen pertsonon esku hartzerik ez balego eta gaur egun zer dagoen. Horretarako Urkulura joan ginen.

Orduan ikusi genuena ikusita ondokoa eskatzen diogu udalari:

- Landa zabalean (Urkulun) udalak dituen eraikinak berrizterakoan, kontutan izan hegaztien bizilekuak egon daitezkeela.
- Gaur egun jartzen diren alanbrezko laukidun itxiturak ez dira egokiak, animalien mugikortasuna oztopatzen dutelako. Baserritarrei informazio hau zabaldu neurriak har ditzaten.
- Herritarrei landare inbaditzaileen inguruko informazioa eman.
- Herritarren artean basoei buruzko informazioa zabaldu eta udalak dituen basoetan adin guztietako zuhaitzak daudela ziurtatu.

DBH 3. mailako ikasleok gara Biodibertsitatearentzat hain beharrezkoa den LURZORUA jorratu dugu eta honen galera historian zehar. Honetarako 1954ko eta 1983ko ortofotoak gaur eguneko egoerarekin konparatu ditugu. Lurzoru mota ezberdinak ere aztertu ditugu.

Ikusitakoaren arabera, ondorengo eskatzen diogu udalari:

- Lurrak 2. eta 3. sektorerako okupatu behar direnean kontuan hartu galtzen denaz eta ordezkatzeko saiatu berdeguneak, zuhaitzak landatuz,...
- Larrin plazan eraikitzen hasita baina amaitu gabe dagoen etxe horretarako konponbide bat bilatzea.